


33 urte dituen ermuar honek, Abuztuan Suitzara joan eta Europako Iron Man triatloi proba famatua egitea erabaki eta amaitzea ere lortu zuen. Ia urtebete eman zuen proba hori prestatzen eta egindakoz ez du damurik. Erronka handiagoak nahi ditu eta kirol dendako lanak tarte larregi lagatzen ez dion arren, Hawai-n urtero ospatzen den froga horretan parte hartzea du amets.



Manolo Mendez (Triatloilaria):

“Hawai-ko Iron Man-a egitea ere nahiko nuke”

- Noiztik triatloia egiten?

22 urterekin hasi nintzen Moises Urtarte-rekin batera. Hura izan zen aitzindaria Ermuan

- Ermuan triatloi taldea ere bada...

Bai, hamar pertsona gara eta Euskadi mailan udaran antolatzen diren duatloi eta triatloietan parte hartzen dugu. Horrez gain, Maiatzean Ermuko Duatloi froga antolatzen dugu.

- Ospe eta oihartzun gutxiko kirola da tamalez....

Euskal Herri mailan nahiko ospe duen kirola da nahiz eta diru laguntzaileak lortzea ez den hain erreza izaten. Hemen inguruan, adibidez Eibarren indar dextente duen kirola da.

- Udaran Suitzara joan zinen....

Bai hala da. Emaztearekin eta Eibar-ko lagun batekin joan nintzen Europako Iron Man proba egitera. Hawain ospatzen den proban parte hartzeko baliagarria zen.

- Zein izan zen egin beharreko lana?

Igeritan, 3.800 metro, 180 kilometro bizikletan eta 42 kilometro korrika. Aitzitik, eguraldiak ere ez zuen batere lagundu.

- Zein izan zen frogarik gogorrena?

Igeriketa dudarik gabe.

- Fisikoki nola bukatu zenuen?

Erabat lehertuta. Zenbait egunez narbitu nituen ondorioak.

- Zein postutan amaitu zenuen?

1.300 partaide izan ginen eta 250. postuan amaitu nuen

- Zenbat ordu behar izan zenituen froga burutzeko?

10 ordu eta zortzi minutu.

- Zenbait kilo ere galduko zenituen....

4 edo 5 inguru.

- Eibarko zure lagunak Hawai-rako txartela lortu omen zuen..

Bai profesionala ez dela kontutan izanik, izugarritzko lana egin zuen.

- Zein da zure hurrengo erronka?

Kanarias-en ere izaten da beste Iron Man bat eta han parte hartzea nahi nuke. Hawai-koa ere amesten dudana arren.

Asier Ibaibarriaga